

Auzoko kaleak

Cristina Soto

1. ESZENA

Aberatsaren etxea. Florentzia, emaztea, irakurtzen dago. Hankak goian ditu.

Aberats jauna: *Florentzia, seme-alabak bilduko dituzu?* (Irteten da, gauzak alde batetik bestera eramaten ditu)
Florentzia: (Nagitasunez) *Bai, noski. Umeok, hona.* (Ez da inor agertzen)
Aberats jauna: *Florentzia, mesedez.*
Florentzia: (Mugitu barik) *Hona, esan dut.*
Aberats jauna: *Florentzia!*
Florentzia: *Ezin naiteke lasai egon, ala?* (Indar gehiagorekin) *Umeok, esan dizuet hona etortzeko!*

Andoni eta Nerea agertzen dira.

Andoni: *Zer, ama? Nekatuta nago, aldizkari bat irakurtzen nengoen.*
Nerea: *Hemen nago. Zer prestatu digute gaur zerbitzariak bazkaltzeko? Gose naiz.*

Florentzia: Zuen aitak ez dakit zer esan nahi dizuen. Deitu
besteei.
Andoni: (Alde batera) *Aizue, hona!*

Mikel, Eneko eta Amaia sartzen dira.

Mikel: Batek ezin du atsedena hartu ala?
Eneko: Zer nahi duzue? Kontsolarekin jolasten nengoen.
Amaia: Eta ni, azazkalak margotzen!
Nerea: Aitak gurekin hitz egin nahi du.

Aberats jauna alde batetik bestera dabil, pentsakor.

Aberats jauna: *Florentzia, mesedez, seme-alaba guztiak bil-
duko al dituzu behingoz?*
Florentzia: *Ene bada! Banoa... (Alde batera) Zatozte orain-
txe bertan!*

Saioa eta Almudena agertzen dira. Edu beranduago sartzen da.

Saioa: *Joe, Imanolekin nengoen telefonoz berba egiten,
eta eten behar izan dut.*
Almudena: *Eta ni, elkarrizketa entzun barik geratu naiz.*
Edu: *Hemen nago!*

Eduri begira geratzen dira guztiak, zer egiten egon den azalpena
entzuteko.

Edu: *Zer?! Ez dizuet esango. Dena jakin nahi duzue!*
Aberats jauna: *Tira, aski da! Azkenik, denak zaudete hemen
Florentzia, emazte maitea, Edu, Almudena,
Saioa, Eneko, Amaia, Mikel, Nerea eta Andoni*

*maiteak, nire bizitza osoan pilatu ditudan
ondasunak banatu nahi ditut. Asko pentsatu eta
gero, ez daukat argi zer egingo dudan.
Erabakia hartzea ez da batere erraza niretzat;
auzoko batzarrera noa orain, eta, bueltatzean,
nire erabakia zein den azalduko dizuet.*

Denek aldatzen dute jarrera.

*Florentzia: Ados, bihotza. Zure zain egongo gara.
Andoni: Bale, aita.
Nerea: Ederto, aita maitea.
Mikel: Lasai joan, aita.
Eneko: Ez gara hemendik mugituko.
Amaia: Hemen itxarongo zaitugu.
Saioa: Orain arte. aitatxo!
Almudena: Laster bueltatu!*

Eduri begira geratzen dira denak.

Edu: Zer?!

Aberats jauna irteten denean urduri jartzen dira denak, eta musika batekin koreografia batean adierazten dute.

*Edu: Argi dago niretzat izango direla ondasun
guztiak. Txikiena naiz eta, gainera, zuek beti
zaudete aita goraipatzen.
Almudena: Hori ez duzu ezta zuk ere sinesten! Niretzat
izango dira, segur aski. Ni bere alaba txikiena
naiz, bere azukre-koskorra.*

Saioa: Ezta pentsatu ere! Ni izan naiz beti bere azukre-koxkorra!

Eneko: Niretzako izango dira, ni naiz matematiketan hobeto aritzen dena.

Amaita: Bai zera! Ni naiz kontuekin hobereena!

Mikel: A zer lelokeriak ari zareten esaten! Azukre-koxkorra, matematiketan hobereena... Niretzat izango dira, nirekin eramaten da hoberen.

Nerea: Nagusia ni naiz, logikoena da niretzat izatea.

Andoni: Ni zu baino minutu batzuk arinago jaio nintzen, beraz, legez, herentzia niretzat da.

Eztabaidatzen eta borrokatzen hasten dira.

Florentzia: Isildu zaitetze! Jakin ezazue ni bizirik nagoen bitartean, herentzia niretzat dela, zalantzarik gabe!

Seme-alabek, besoak antxumatuta, lerro bat osatzen dute, eta argia joaten da.

2. ESZENA

Herriko plazan auzokideak, batzartuta.

Manu: Auzoan dugun arazoari konponbidea bilatu behar diogu!

Tere: Gure kaleek seguruak izan behar dute berriro!

Mari: Iluntzean kalera atera behar naiz, eta lasai ibiltzeko beharra daukat. Lagunekin zinemara joaten naiz askotan, edota afaltzera...

Joxe: Nik txakurrak atera behar ditut; bestela,
etxean egiten dituzte haien gauza guztiak...
Hori bai dela premiazkoa!

Ramon: Zerbait pentsatu behar dugu, hain arraroa den
honi irtenbidea aurkitzeko.

Eli: Ideia bat daukat: proposatzen dizuet kaleak
gure artean zaintzea. Zer diozue?

Manu: Nori iruditzen zaio ideia ona? Nor dago ados?

Eskuak altxatzen joaten dira. Azkenean, guztiak jasotzen dute eskua.

Aberats jauna: Nirekin eta nire familiarekin ere kontatu!

Manu: Ondo da. Guztiok ados.

Joxe: Eta zelan egingo dugu?

Mari: Txandakatu beharko gara...

Eli: Hori da! Txandakako zaintza egingo dugu. Gaur
gauean hasiko gara.

Ramon: Auzoa zorrotz zaintzeko, txanda zuzenak egingo
ditugu.

Tere: Oso ondo. Arratsaldean zuen etxeetan jasoko
duzue banaketa.

Auzokideak: Ondo da!

Irteten dira. Argia joaten da.

3. ESZENA

Hiru auzokide elkartzen dira, zelatatzeko. Banaka sartzen dira, mu-sika batekin.

Teo: *Leo, Elo!*
Elo: *Kaixo, Teo.*
Teo: *Zuekin tokatu zait kaleak zaintzea.*
Elo: *Bai, hiruko taldeak egin dituzte.*
Leo: *Baina zergatik jarri ditugu kaleak zaintzeko txandak?*
Zer gertatzen ari da auzoan bada?
Elo: *Ez al zara ezertaz jabetu?*
Leo: *Zertaz?*
Elo: *Ezertaz?*
Teo: *Benetan, ez dakizu zer gertatzen ari den?*
Leo: *Ez. Horregatik galdetu dizuet.*
Elo: *Ezin dut sinetsi. Zuri ez zaizu gertatu?*
Teo: *Nola da posible! Zure etxean ez da gertatu? Zure ondoko*
etxean bai, gertatu zen.
Leo: *Baina, zer? Zer gertatu zen?*
Elo: *Ez zinen jabetu?*
Leo: *Zer demontre gertatzen ari da? Zerbait gertatu al zaizue*
zuei? Esango al didazue, behingoz, zer arraio gertatzen
ari den auzoan?
Elo: *Begira... (Irteten dira)*

4. ESZENA

Beste auzokide batzuk agertzen dira. Musika batekin elkarrekin sartzen dira, zelatatzen.

- Lara:* Gaur, dena lasai-lasai dagoela ematen du.
- Eder:* Noski, badakite-eta gu hemen gaudela.
- Feli:* Hori uste duzu?
- Eder:* Klaro. Ez duzu nabari?
- Feli:* Egia esan... ez dut ezer nabari. Nik inoiz ez dut ezer nabaritu, gure auzoko kaleak nahiko seguruak direla uste dut.
- Lara:* Zuk zortea izan duzu, ez dizute ezer lapurtu!
- Feli:* Zuei bai, ala?
- Eder:* Bai. Niri behin lapurtu zidaten.
- Lara:* Niri, hirutan.
- Feli:* Zer? Baina...
- Eder:* Niri ortuko barazkiak desagertu zitzaizkidan. Hasieran animalia ren bat izan zela pentsatu nuen, baina, auzokideekin hitz egin eta gero, iritzia aldatu nuen.
- Feli:* Zergatik? Amamari baratzean askotan gertatu zaio hori. Basoa gertu izanda normal da halakorik gertatzea.
- Eder:* Auzokide gehienek lapurretaren bat bizi izan dute. Batzuei oso gauza arraroak gertatu zaizkie.
- Lara:* Niri, adibidez, lehenengo aldian esekitokian neukan jertse bat desagertu zitzaidan. Gainera, ez pentsa jertse polita zenik: etxean egoteko erabiltzen nuen jertse zahar bat zen —hori bai, bero-beroa—. Hurrengo egunean, etxeko zapatilak lapurtu zizkidaten. Garbitu ondoren lehortzen utzi eta, konturatu nintzenerako, ez zeuden nik utzitako lekuan. Eta azken aldian, bikotekoari pres-tatutako bokata desagertu zen.

Feli: Benetan? Eta nork lapurtuko zituen gauza horiek? Ez du inolako zentzurik. Ziur zaude ez dituzula beste leku batean utzi?

Lara: Bai, noski! Hirutan gertatu zait, neska!

Feli: Baina...

Lara: Zer esan nahi duzu horrekin, despistatua naizela?

Feli: Ez. Nik, bakarrik...

Bat-batean, oihuak entzuten dira.

Eder: Sssssh! Entzun duzue hori?

Feli: Bai, handik entzun da!

Lara: Goazen ikertzera!

Arin irteten dira.

5. ESZENA

Aberatsaren etxea. Salan daude guztiak, baina ez daude ezer egiten. Aspertuta daude. Aita sartzen entzutean, lerroa osatu, eta jarrera guztiz aldatzen dute. Oso irribarretsu, aita agurtzen dute.

Nerea: Badator!

Florentzia: Erabakiaren zain gaituzu!

Aberats jauna: Kaixo, familia. Auzokideok erabaki dugu gure artean auzoko kaleak zaintzea. Zuek ere parte hartuko duzuela esan diet.

Andoni: Zer? Guk kaleak zaintzea?

Nerea: Horretarako ez al dago polizia?

Aberats jauna: Ez da nahikoa, antza.

Mikel: Guk ez dugu horretarako denborarik!

Amaia: Ezta gogorik ere!

- Eneko:* *Besteek etxean lasai egoteko? Bai zera!*
- Saioa:* *Ezta pentsatu ere!*
- Almudena:* *Baina zertarako elkartu gara gu?*
- Edu:* *Zure erabakiaren zain daramagu ez dakit zenbat denbora, aita.*
- Florentzia:* *Hori da, auzoko batzarra beste kontu bat da. Gatozen harira.*
- Aberats jauna:* *Zuek auzokideekin elkarlanean aritzen ez bazarete, nik ez dizuet herentziarik utziko.*
- Florentzia:* *Ba... ba... baina nork esan du hori?*
- Almudena:* *Parte hartuko dugu, bai noski! (Saioari ukon dokada ematen dio)*
- Saioa:* *Bai, brometan ari ginen, aita. (Disimulatzen)*
- Amaia:* *Hori da. Nola ez dugu lagunduko, bada?*
- Eneko:* *Ni irrikan nago. (Xuxurlatuz) Erotuta dago.*
- Mikel:* *Erabaki ona hartu duzue. (Enekori baietza emanaz)*
- Andoni:* *Ezin hobea. (Xuxurlatuz) Nik ez dut lan hori egingo inola ere ez.*
- Nerea:* *Kristona! Bazkaltzera joan gaitzke?*
- Edu:* *Bai, onena izango da.*
- Aberats jauna:* *Hauek ergela naizela uste dute. Zelako familia! (Irteten dira.)*

6. ESZENA

Teo, Elo eta Leo txiro batekin daude. Musika. Txiroa inguratuta daukate.

- Teo:* *Esan zertan ari zineten etxe horretan!*
- Txiroa:* *Ez dugu ezer egin! Nik ez dut ezer egin!*
- Elo:* *Eta nortzuk ziren ihes egin dutenak?*

Txiroa: Ez dakit.
Elo: Zelan ez dakizula?! Zurekin zeuden eta!
Leo: Eta hau guztia, zer da? (Txiroak daraman zakua
husten duen bitartean)
Teo: Argi dago lapurretan egon zaretela. Aitortu
behingoz!

Eder, Feli eta Lara sartzen dira.

Eder: Zer gertatu da? Oihuak entzun ditugu.
Leo: Lapurretako bat harrapatu dugu, baina bes-
teek ihes egin dute.
Lara: Nondik joan dira? Zenbat ziren?
Teo: Handik joan dira eta hamar bat ziren!
Feli: Ea harrapatzen ditugun. Goazen!
Elo: Bai! Guk plazara eramango dugu hau.

7. ESZENA

Herriko plaza. Musika. Auzokoek txiroa inguratuta daukate.

Teo: Zelatatzen geunden eta...
Leo: Imanolen etxean zaratak entzun ditugu...
Elo: Hurbildu garenean han ikusi ditugu lapurrak,
baina hau bakarrik lortu dugu harrapatzea.
Mari: Esango al didazu non dauden nire felpazko izarak?
Joxe: Eta nire txakurrei desagertutako pilota guztiak?
Manu: Eta nire lorategiko sagarrondoaren sagarrak?
Tere: Erantzun, lotsagabe horrek!
Ramon: Nongoa zara? Nora joan dira zure lagunak,
guri lapurtutako gauzekin?

Eli: Hemen ez baduzu erantzun nahi, kartzelan egin beharko duzu.
Txiroa: Ez, mesedez. Ezin naiz kartzelara joan, nire familiak behar nau!

Une horretan Eder, Feli eta Lara sartzen dira. Bakarrik datoz.

Eder: Ikusi ditugu, baina alde egin dute.
Feli: Azkarrak ziren. Guztiak ziren umeak.
Lara: Guztiak, andre bat izan ezik.
Txiroa: Bai, nire familia da. Lapurtzen egon garela aitortzen dut. Etxetik bota gintuztenetik ez dugu jatekorik, ezta jantzirik ere ez. Inork ez gaitu laguntzen, eta familiari jaten emateko bururatu zitzaidan gauza bakarra lapurtzea izan zen. Haiek inoiz ez naute bakarrik utzi, beti etorri dira nirekin laguntzera. Ez nien utzi behar, ez nago batere harro, eta barkamena es-katzen dizuet. Dena itzuliko dizuegu —beno, jan duguna izan ezik—. Baina lan bat lortzen badidazue, egindako kalte guztia ordainduko dizuet. Ez baduzue nahi, aldiz, herritik alde egingo dugu eta ez zaituztegu berriro molestatu.

Eli: Eta orain, zer egingo dugu? (Mukizapi bat ateratzen)

Manu: Denon artean erabaki beharko dugu zer egin.
Joxe: Nik, nire gauzak berreskuratzen baditut...
Mari: Hori esan du, ezta? Lapurtutakoa bueltatuko digutela.

Tere: Niri pena ematen dit...
Ramon: Baita niri ere. Ba al dago proposamenik?
Aberats jauna: Bai! Nik lan bat eskainiko diot.

Andoni: Txiro ziztrin honi?
Nerea: Aita, zer demontre ari zara esaten?
Amaia: Honi ez eman ezer!
Aberats jauna: Gure familiak umiltasuna behar du, eta hori izango da zure lana, haiei irakastea.
Florentzia: Zoratu egin zara?!
Mikel: Honek guri ezin digu ezer irakatsi.
Aberats jauna: Nik, horren trukean, etxebizitza emango dizuet, eta seme-alabei arropak erosteko eta jaten emateko dirua.
Saioa: Familiaren dirua ez duzu horretan erabiliko, aita, ez duzu eskubiderik!
Aberats jauna: Nik nire diruarekin nahi dudana egiten dut, eta zuek, jarrera aldatu arte, ez duzue ezer jasoko.
Almudena: Hau sinestezina da!
Eneko: Gure dirua horretan gastatzea ere!
Edu: Lotsa-lotsa eginda nago!
Florentzia: Baina aita, pentsatu ondo...
Aberats jauna: Erabakia hartuta daukat, ez dut zalantzarik!
Txiroa: Eskerrik asko, benetan.

Guztiek txalotzen dute. Familia guztiz lotsatuta ateratzen da, eta argia joaten da.

AMAIERA.

Pertsonaiak

Aberats jauna

Florentzia

Andoni

Nerea

Mikel

Eneko

Amaia

Saioa

Almudena

Edu

Manu

Tere

Mari

Joxe

Ramon

Eli

Elo

Leo

Teo

Lara

Eder

Feli

Txiroa

